# Pater putativus

JOSE IGNAZIO ANSORENA

Osasunak bolada batez erretenean utzi nau eta, bidera itzultzean, ez zait iruditu munduko arazo handienek hobera egin dutenik, Trump ahoberoak azkar batean konponduko zituela iragarri zuen arren. Gure Europa ere beldurgarri. Ameriketako mamuari aurre egiteko ausardirik ez, errainetan zorne fatxosoa haziz, betirako irabazita uste genituen aurrerapen asko auzitan... Hurbilago oraindik, bizi garen estatu honetako saltsa gero eta ustelagoa, buruzagiak ordezkatu nahi lituzketenak haiek baino kalamitosoagoak oraindik eta curriculum ezin zikinagoaren jabe. Justiziaren gobernua duten epaile eta fiskalak markesaren alaba bezain interesatuak. Eta zerbait ulertzen lagundu behar ziguten kazetarien arteko asko ere hura bezala enamoratuak gezurrarekin.

Zer egin kontuak hobetzeko? Hainbaten erantzun erraza: ezin dugu ezer egin, ez dugu horrenbesteko indarrik. Beste batzuk diagnostiko ilunagoa zabaltzen dute: denak (eurak ez beste noski) berdinak dira, bakoitzak bere muturra zaintzen du, norberak bere sakelari begiratu eta kito. Guk ere berdintsu jokatu beharko. Oker dabiltza, ordea.

Erantzun egokia kontrakoa da: zuzentzeko hainbeste dagoenez eta munduak bide txukunxeagoan abiatzeko gure jardunaren beharra duenez, ekin diezaiogun ba. Ezinezkoa da lurrean zerua lortzea noski. Pertsonok badugu kristauok jatorrizko bekatua deitzen duguna, egoismorako joera, besteen gaineko boterea gozatzeko tentazioa... Baina zerbait hobetu ahal da, bereziki horren hautua egiten denean. Igande honetako ebanjelioak gogorazi digu: «Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: Bakea etxe honetakoei». Horri jarraitzen diotelako edo beste arrazoiengatik, jada lur zabalean berdintasunaren eta bakearen alde ari direnak miloika dira. Batzuk euren bizitza jokuan jartzen. Esaterako, Gazan giza la-



FOTOLIA

guntza zabaltzen edo liskar handitan dauden beste herrialde pobreetan osasun, hezkuntza, ekimen sozial eta injeniaritza azpiegituretan hobetzeko ahaleginetan. Beste batzuk hemendik lan egiten duten erakundeekin kolaboratzen diruak ematen edo behar diren eginkizunetan jarduten. Eta hemengo arazoetan (auzoetakoak, etorkinen laguntza, sexu gehiegikeriak, emakumeen eta joera sexual desberdinen eskubideen alde, edozein aldetiko ahulen mesedetan...) buru belarri dabiltzanak ere ugariak dira. Fatxodromoan jokatzen duten batzuk, aldiz, kristautasunaren izenean aritzen direla diote. Beste Ebanjelioa irakurtzen dute nonbait.

Gehienok, zoritxarrez, ezer handirik gertatuko ez balitz bezala bizitzen jarraitu nahi dugu. Ari gara nozitzen, eta hemen gutxitxo oraindik, aldaketa klimatikoak eragiten dituen beroaldiak esaterako. Baina Euskadin pozik turismo tasa kobratzen hastekoak direlako. Ziur aski gure artean turismoa promozionatzeko eta hark ekarritako kalteengatik gastatu dena orekatzeko ez da iritsiko. Ez al litzateke hobe alpargata eta isiltasunezko turismoa bultzatzea? Jendeei sinestarazi digute plan ezinhobea dela Oslora hiru egunetarako joatea edo astebeterako Vietnamera, bidaia horiek hondatzen duten guztia kontuan hartu gabe. Gehienek, aldiz, ez dituzte ezagutzen Txindoki, Aizkorri, Ganekokorta, Toloño... Agian Kalamua proposatuz gero, baietz erantzungo dute batzuk, mendi ordez, belarra delakoan. Hirietako auzoak oinez ibiltzea ere turismo ederra da. Zenbat aurkikunde egin daitezkeen!

Hitzaldi, artikulu, festa eta ospakizun askotan entzuten den esaldia da hau: Izan zirelako gara, garelako izango dira. Baina gauden egoera larrian iruditzen zait martxa honetan aldatu egin beharko dela: Izan zirelako gara, garelako ez dira izango. Larritasun honetatik ateratzeko, ongi pentsatzen lagunduko diguten gidari zintzoak behar ditugu. Horrelakoa zen Joxe Azurmendi, Zegamako idazlea, Arantzazuko izpirituak blaitutako jakintsua.

Berriki hil da. Joan da soilik maila horretako maisuek dakiten moduan, apaltasunik handienaz. Berak idatzitakoak irakurriz ezagutu nuen mundua sakonean aztertzeko zuen gaitasuna. Pertsonalki San Bizente elizan, gure parrokian, Iñaki lagunak ekarri baitzuen hainbat jai berezitan bertara mezetara. Han, horrelakoetan ohikoa genuenez, Koro Saenz eta biok organo eta txistua jotzen genuelarik, esker oneko agertu zitzaigun. Gurekin Aizkorriko doinuak entzuten zituela esan zigun. Hedabideetan oso aipatua izan da, baina ia ezkutatu da bera batez ere Arantzazuko frantziskotarra sentitu dela hil arte. Ez dago boladan. Horrela utzi zuen idatzia: Argi bila hil denak, Argia aurkitu du. Azurmendiri inork ez zion Pepe deitzen, Espainian Jose izenekoentzat oso zabaldua den arren. Askok diotenez, San Jose izenaren ondoan garai batean erabiltzen zen latinezko Pater Putativusetik dator, Jesusen ustezko aita. Hori adierazteko gehienetan laburdura erabiltzen zuten, PP, Pepe. Argitu behar da putare aditzak pentsatzea adierazten duela. Eta ez diot inori begiratzen. Baina gezurra da hortik datorrenik. Gezur gehiegi daude bi letra horien inguruan.

## CARTAS AL DIRECTOR

Las cartas dirigidas a esta sección no deberán exceder los 900 caracteres con espacios y han de llegar a la Redacción debidamente identificadas con firma, nombre y apellidos, y número de DNI. Es imprescindible adjuntar dirección y un teléfono de contacto. La Dirección de El Diario Vasco se reserva el derecho a resumirlas y no se mantendrá correspondencia escrita, personal o telefónica sobre las mismas.
Los envíos se harán bajo el encabezamiento «Cartas al Director» por cualquiera de estas vías:
Por correo: **Mikeletegi Pasealekua 1. 20009 Donostia San Sebastián**
Por correo electrónico: **redaccion@diariovasco.com**

### Antepasados y hábitos

El cerebro humano conserva hábitos que heredamos de nuestros antepasados. Son instintos que a menudo ignoramos. Numerosos estudios demuestran que la escasez de alimentos y las etapas de hambre extrema a las que se enfrentaron los humanos en la prehistoria dejaron una marca en nuestro cerebro. Este condicionamiento nos lleva, incluso hoy, a sentir una atracción natural hacia los alimentos altos en calorías. La industria alimentaria conoce bien este fenómeno, de ahí que la comida procesada o la comida basura sean tan populares. ¿Por qué los alimentos ultraprocesados tienen tantas calorías? Porque esa característica activa una respuesta instintiva en nosotros, haciéndonos desear este tipo de productos. Elegimos alimentos de menor contenido calórico de manera consciente, ya sea porque queremos mantener un estilo de vida saludable o por cualquier otra razón. En estos casos, tomamos decisiones racionales. Sin embargo, cuando deseamos un alimento procesado, esa elección parece surgir de un impulso más profundo, como una necesidad inconsciente. Es fascinante cómo las condiciones de vida de nuestros antepasados siguen dejando huella en algo tan básico como el hambre y nuestras elecciones alimentarias.

**LAIA JEREZ TORRES** DONOSTIA

### ¿Cobrar el hielo en los bares?

Ahora resulta que si vas a un bar y pides un café con hielo, ese hielo te lo cobran. Lo mismo ocurre con un refresco o con una tónica. Una nueva práctica que ha sorprendido a una gran mayoría de la ciudadanía y que, aunque de entrada es un gesto a mi juicio bastante feo, es completamente legal. Así lo explicó la OCU. Si bien puede parecer una práctica abusiva, es legal que puedan cobrarnos por el pan en las comidas en un restaurante o la leche del café en un cafetería, eso sí, siempre y cuando estos artículos aparezcan en la carta y su precio esté indicado. En cualquier caso, por muy lícito que sea, muchos consumidores se llevarán una gran sorpresa cuando en algún local les entreguen la cuenta y se encuentren con conceptos que no contaban. Que un café te cueste 1,60 euros y si lo pides con un par de hielos suba a 1,80, me resulta increíble. Menos mal que no todos los establecimientos quieren llevar a cabo esta nueva práctica de cobrar los hielos, la leche o el pan. Algo que los consumidores les agradecemos de verdad...

**JON SALAZAR AGIRRE**
HONDARRIBIA

## Mensaje en una camiseta

ROSA PALO



A partir de una edad, son muy pocos los que pueden lucir una camiseta con mensaje sin resultar una ridícula parodia de sí mismos. Chrissie Hynde, por ejemplo. Setentona, la veo en una foto con una camiseta de Motörhead y me la creo. Mantiene esa dignidad chulesca, esa actitud desafiante, ese ojo pintado al carbón. Yo, en cambio, me pongo la mía de los Ramones y no parezco una vieja rockera, sino una rockera vieja. Es igual, pero no es lo mismo. Peor que una cincuentona con una camiseta de los Ramones es que utilicen el 'Blitzkrieg Bop' («Hey Ho! Let's Go!») en el congreso del PP y que, para rematar, los asistentes la conviertan en «Hey Ho! Feijóo!». En fin, qué punki todo. Como los chiquillos de Nuevas Generaciones, jóvenes emprendedores donalgodoneros que colocaron un puesto de pingos con eslóganes propios («Muy españoles y mucho españoles», «No soy presidente porque no quiero») y ajenos («Bueno, son las cinco, no he comido»). Faltaban el «Déjame beber tranquilo» de Aznar y el «Sí, nos gustan las cañitas» de Díaz Ayuso. Lo hubieran petado entre los canallitas engominados. Mejores lemas camisetiles que la presidenta madrileña nos ha dado Lucía Pariente, madre de Alba Carrillo: «En mis bragas mando yo», dijo hace unos años. Están tardando en hacer una camiseta con esa frase para venderla en el congreso del PP, en el comité federal del PSOE y en Toldos Manolo, que el machismo, transversal y estructural, está presente en cualquier organización: no entienden, o no quieren entender, que no nos pueden poner una mano encima, ni babosearnos, ni humillarnos, ni amedrentarnos. A ver si así, con mensajes bien simples, se coscan. Y puestos a la altura del pecho. Seguro que los leen.